



GARA

Gara

Gara

ULMA gara

Zer da ULMA?
Partaidetza,
Berrikuntza,
Lehiakortasuna
eta Lankidetza



ULMA bere jendearekin eta ingurunearekin konprometituta dagoen Enpresa Taldea da. Gero eta globalizatuago dagoen mundura irekita dagoen proiektua. ULMA Espainiako iparraldeko Enpresa Talderik handienetakoa da, merkatuan presente 50 urte baino gehiago egin dituen eta **Berrikuntzarekin, Enpleguarekin eta Balio Erantsiarekin** konpromiso argia daukana.

ULMA **Pertsonengan eta beraien garapen integralean** oinarritutako proiektu sozio-enpresariala da, bezero, Taldeko langile, kanpoko laguntzaile eta inguruko gogoia etengabe betez **hazkunde errentagarri eta iraunkorra** ahalbidetzera eta, ondorioz, aberastasuna eta lanpostu berriak sortzera bideratua, lankidetza, komunikazio eta partaidetza aktiboko esparruen barruan.

Hasiera-hasieratik Arrasateko Esperientzia Kooperatiboari lotuta, ULMA Taldea **MONDRAGON Korporazioko** kidea da. ULMAren nortasuna hezkuntza, finantza, ikerketa eta gizarte aurreikuspenaren eremuetan abangoardian dauden hainbat erakundek markatutako ingurune batek zehazten du.

T Talde Soziala

Gure
Pertsonen
Konpromisoa



ULMA Taldean Pertsona **enpresaren etorkizunaren muinean** dago. Taldea osatzen duten pertsonen ezagutzak, trebetasunak eta konpromisoa dira bere aktibo nagusia. Gaur egun jada 4.500 pertsonak baino gehiagok osatzen dute Taldea.

ULMA bere pertsonen garapen profesionalaz arduratzen da, proiektu korporatibo bateratu baten barruan, eta, besteak beste, pertsonen kudeaketan eta emaitzetan parte hartzea eta horien zati izatea bultzatzen du.

ULMAk Talde Sozial gisa duen proiektuaren azken helburua da Enpresa Sozialaren eredu izatea, forman eta funtsean ohiko eredu sozio-enpresarialek ez dituzten ezaugarriekin. ULMAk, talde kooperatiboa den heinean, helburu soziala dauka, eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa da Gizarte bidezkoagoa eraikitzea pertsonak egunetik egunera hobeto bizi ahal daitezen.



B Bokazio Unibertsala

Mundua
Aldarazten duten
Proiektuak



ULMAren apustua da izaera internazionalako Talde bat izatea, **jarrera irekia eta harbera duena, merkatu eta herrialde bakoitzeko kulturara egokituta**. Nazioartekotze proiektua etorkizunari begira dago, eta gero eta globalizatuago dagoen merkatu bati modu eraginkorrean eta efizientean erantzungo dion lehiakortasun testuinguru batean kokatuta dago.

Nazioartean hazteko aukerak espezifikotasun lokalaren analisiaren ondorio dira, eta asmoa da enpresa praktikak hobetzea, ULMA Taldea presente dagoen **merkatueta-*ra*** egokitzeko ekimen gisa. Munduan dabiltzan adimen fluxuetan barrena nabigatzen jakitea merkatu guztietan lehiakortasunez posizionatzearen parekoa da.

ULMA Taldea 80 herrialdetan baino gehiagotan dago presente, bere Negozioen bitartez. 2014an 700 milioi euro baino gehiagoko salmentak egin zituen, eta guztira egin-dako salmenta horietatik %75 baino gehiago nazioartean egindakoak izan ziren.



S Sustapena eta Berrikuntza

Pertsonen
Bizitza
Hobetzen
duten Ideiak




ULMA Taldearen Berrikuntza Politikaren helburu nagusia da enpresa jarduera berrien garapena bultzatzea eta erraztea, bere Negozioen baitan eta Taldearen beraren baitan, jarduera arlo berriak sortzeko.

Gaur bi dira dagoeneko abian dauden eta ULMA Taldea lantzen ari den jarduera berriak:

ULMA Embedded Solutions, bezeroei elkarlanean arituta produktua berritzen laguntzen diena Sistema Txertatuen garapenaren bidez, hardwarea eta softwarea neurrira konbinatuz asmo edo funtzio espezifiko baterako.

ULMA Inoxtruck, teknologikoki aurreratuak diren manipulaziorako ekipamendu higienizagarriak eta herdoilezinak fabrikatzen dituenak, batez ere nekazaritzako elikagaien sektorerako eta industrien laborategietarako, esaterako, farmazia industrien laborategietarako.



A Arduratsuak Izan

Gizartearekiko
Konpromisoa



Garapen eredu iraunkorrago baterantz aurrera egiten laguntzeko asmoz, ULMA Taldeak konpromiso handia dauka **gizarte oparoagoa**, bidezkoagoa eta osasuntsuagoa sortzen laguntzeko, bai egungo belaunaldientzat bai etorkizunekoentzat. Arrakasta ekonomikoa eta gizarte ongizatea harmonizatu eta Ingurumenarekin bateragarri egitea da ULMA Taldearen estrategia korporatiboak funtsean duen oinarria.

ULMAk bere Fundazioaren bitartez gizarte ongizaterako konpromiso soziala gauzatzen du eta sortzen duen aberastasuna banatzen du. ULMA Fundazioa ingurunearekin lankidetzan aritzeko tresna gisa jaio zen, Gizartearekin bere Nortasuna, Balioak eta Kultura partekatzeko.



8

Negozio, *hamaika* *aukera*



01
.. Agrícola



02
.. Architectural
Solutions



03
.. Orga
Jasotzaileak



04
.. Construction



06
.. Handling
Systems



05
.. Conveyor
Components



07
.. Packaging



08
.. Piping

ULMA
Agrícola

01

Maiden,
Iñakiren alaba
Fabrikazioko langilea **ULMAN**

.. *Negutegiak*

ULMA Agricolak edonolako berotegi egiturak fabrikatu eta merkaturatzen ditu, baita abeltzaintzako edo biltegietako estalkiak ere. Merkatu globalean jarduten du, soluzio integralak eskainiz, nagusiki Nekazaritzako eta Abeltzaintzako sektoreetara zuzenduta.

Egiturek kontrol klimatikorako teknologia gorenak eta ingeniariaritzak, muntaketa eta salmenta ondorengo laguntzako zerbitzuak dituzte. ULMA Agricolak neurrirako proiektuak sortzen ditu, bezero bakoitzaren behar berezietara egokituak.



.. *Negutegi Adimenduak*

ULMA Agrícola espezializatuta dago ekipamendu teknologiko aurreratuak eskaintzen Nekazaritza eta Abeltzaintzako sektorearen era askotariko jarduera eta aplikazioetarako, esaterako: haztegiak, hazitokiak, biltegiak, industri nabak, lehortegiak, arrain haztegiak, lorezaintza, eta abar, betiere soluzio pertsonalizatua eta adimenduna bilatuz eta kalitatearen aldetik eskakizunik handienak eskainiz, bai produktuei dagokienez, bai zerbitzu eta arretari dagokienez.

Fabrikazio propioa eta sektorearen gaineko ezagutza zabal berme izanik, bezeroari erantzun integrala eskaintzen dio. Hasteko, haren premiak identifikatzen ditu eta, beti harengan pentsatuta, estalkipeko produkzioarako sistemarik onena bilatzen du, baita ureztatu, ongarritu edo tenperatura, hezetasuna eta beharrezkoak diren beste datu klimatikoak kontrolatzeko sistema automatizatuak ere. ULMA Agrícolak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean sendotzeko beharrezkoa den teknologia eman nahi dio ekoizleari, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko.



.. *Sistema
Aurrefabrikatuak*

ULMA Architectural Solutionsek aurrez diseinatutako sistema eta produktu industrializatuak eta berritzaileak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditu.

Helburuak hauek dira: eraikitze epeak eta eraikinen mantentze lanen kostuak murriztea, energiaren kontsumoa gutxitzen laguntzea, lan segurtasunerako sistema integratuak bultzatzea, ingurumenari buruzko soluzioak eskaintzea, eraikitze prozesuan inplikaturako eragile guztien arteko lotura erraztea eta informazio eta komunikaziorako teknologien erabilera hedatua bultzatzea.

.. *Arkitektura eta Ingeniaritzako Soluzioak*




ULMA Architectural Solutions eraikuntzarako soluzio berriak bilatzera bideratuta dago. Polimero hormigoizko soluzio arkitektonikoen gama zabala garatzen du, besteak beste, Kanalizatze eta Drainatze produktuak (drainatze linealerako kanalak, eroapen elektrikoak eta balizatze sistemak), Fatxada Aireztatuak eta Itxiera Industrializatuak eta Aurrefabrikatu arkitektonikoak (leiho isurkiak, gailurrak, leihoburuak, etab.).

ULMAren **Drainatze Lineala** polimero hormigoia-aren aurrefabrikatu izaera eta polimero hormigoia bera elkartzearen ondoriozko emaitza da, eta horrek instalatzeko erraztasun paregabea ematen dio, baita eskulanean aurrezteko aukera ere. Gainera, bere drainatze sistemek ebakuaziorako gaitasun handia ahalbidetzen dute.

Fatxada Aireztatua eraikinaren hormak estaltzeko sistema bat da, ezaugarri estetiko nabarmenak eta abantaila eraginkorrek uztartzen dituen, isolamendu termikoari eta akustikoari dagokionez onura eraginkorrekin. Proiektuak pertsonalizatzeko aukera ematen du, soluzioak bezeroen proposamen artistikoei egokituta.

Aurrefabrikatu Arkitektonikoak eraikuntzako edozein proiektutan erremate gisa sartzeko diseinatu diren piezak eskaintzen dituzte. Erresistentziari eta iragazgaiztasunari dagokionez, beste material batzuek baino emaitza hobekak dituzte. Kalitate handiko akabera estetikoak dituzte.



ULMA

Orga Jasotzaileak

Aitor,
*Jose Antonio*ren semea
Banaketa-sarearen arduraduna **ULMA**n

Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak aditua da merkantziak mantentze makinen bitartez manipulatzeko soluzio integraletan.

Esperientzia arrakastatsuko 30 urte baino gehiagori esker, erakundea bere bezeroen eskakizunik zorrotzenetara egokitu ahal izan da, eta maila handiko kalitatea eta aholkularitza profesionala eskaintzen du produktibitatea handitzearekin lotura duten premiei dagokienez.

ULMA Orga Jasotzaileak

.. *Bikaina hobetzen*

ULMA Orga Jasotzaileak negozioaren jardura da lehen markako orga jasotzaile eta mantentze elementuen gamarik osotuen alogatzea eta saltzea, eta bera da, halaber, MITSUBISHI eta HUBTEX marken inportatzaile eskusiboa Espainian. Aukerako makinak zein ia berriak direnak ere saltzen ditu, kalitate estandar altuekin berregokituta, bai flota txikiatarako, bai flota handietarako.

ULMA Orga Jasotzaileak-ek, bere banaketa-sarearen eta bere ordezkartzen bitartez, mantentze eta konponketa lanetarako zerbitzu eskusiboa eskaintzen du Espainia osoan marka bat baino gehiagotarako, eta ordezeko piezak ere saltzen ditu. USM Financeren bitartez finantza aholkularitzarako zerbitzua ere eskaintzen du, zeinaren bitartez mantentze ekipamenduen erosketa edo renting eragiketa mota bakoitzerako soluzio finantzario malgu eta neurrirakoak ematen baititu.



Xabier,
Gurutzeren semea
Fakturazio prozesuen kudeatzailea **ULMA**n

..

Eraikuntzarako enkofratuak eta aldamioak

ULMA Constructionek enkofratu, sistema igokari, apeo eta aldamioen soluzio osoak saldu eta alokatzen ditu, bizitegien eraikinetarako zein bestelako eraikinetarako, obra zibiletarako eta birgaitze lanetarako.

50 urte baino gehiago izateak ezagutzak eta esperientziak metatzea ahalbidetu dio. Eta egiten ikasitakoari esker, zerbitzurik hoberena eskaintzen die bere bezeroei. Proiektu bakoitzari balio erantsi handia eranstean dio, soluzio eraginkor eta abangoardiakoekin.

.. *From the beginning
of your projects*

ULMA Construtionek obra modu eraginkorrean gauzatzen du, materialak optimizatuz eta bere bezeroei berrikuntzak eskainiz. Hori dena soluzioak eta ezagutza eskainiz eta abangoardiako teknologia emanez, eraikuntzaren sektoreari lagundu nahi dioten profesionali esker. Talde lanerako erdua da, garapen profesionala sustatzen duena eta langileei espezializazio maila handia ematen diena, produktu garapenean eta eraikuntza prozesuetan aditu bihurtu daitezzen.

ULMA munduko enpresa handieneko bat da eraikuntzaren sektorean. Kontinente guztietan du presentzia, eta bere produktuak eta zerbitzuak herrialde bakoitzaren errealitateara egokitzen dira.



ULMA Conveyor Components

.. *Arrabolak, Girlandak, Euskarriak eta Danborrak*

ULMA Conveyor Componentsek solteko garraiorako osagaiak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditu, esaterako arrabolak, girlandak, euskarriak eta danborrak, batez ere meatzaritza, energia, zementu eta altzairugintza sektoreetara bideratuta.

Alaitz,
Montseren alaba
Administrazio komertziala **ULMA**n

.. *Soluzio integralak*

ULMA Conveyor Componentsek bi jarduera lerro ditu; batetik, HDC lerroa (Heavy Duty Conveyor), zama, abiadura, energia kontsumoa eta zaradari dagokienez eskakizun handiak dituzten garraiatzaileen instalazioetara zuzenduta. Lerro horrek ikatz, kobre eta burdin mineralaren meatzaritza handirako produktuak saltzen ditu, baita jarduera horietan proiektu handiak egiten dituzten ingeniartzetarako produktuak ere.

Eta, bestetik, MDC negozio lerroa (Medium Duty Conveyor), ahalmen ertaineko garraiatzaileak eta sektorean ohikoak diren arauen araberako eskakizunak dituzten instalazioetara zuzenduta. Lerro horrek ikatz zentral termikoak, zementuaren sektorea, fosfato meategiak zein jarduera horietan proiektuak egiten dituzten garraiatzaileen ingeniartzak eta fabrikatzaileak hornitzen ditu bere produktuekin.



ULMA

Handling
Systems

06

June,
Oihaneren alaba
Antolakuntza ingeniaria **ULMA**n

.. *Ingeniaritza
logistiko integrala*

ULMA Handling Systemsek Handling Systemseko Materiala-
ren alorreko ingeniartza integral gisa jarduten du. Bezeroen
eskakizun eta premiak etengabe asetzeko asmoa duten
Produktuak eta Zerbitzuak eskaintzen ditu, bezeroek beren
enpresaren aktiboaren zati garrantzitsutzat har dezaten.

Esperientzia eta know how-a pilatuta duten trebakuntza
handiko profesionalak osatutako taldea du, eta sektorean
munduko liderra den DAIFUKUren laguntza du, bitarteko
teknologiko aurreratuenak eta proiektu bakoitzari egokien
moldatutakoak bermatzen dituenak.

.. *Berrikuntza logistikoarekiko grina*

ULMA Handling Systemsek soluzio logistiko automatizatuena gama zabala eskaintzen du, horren barruan egonik biltegiatze automatikorako eta eskariak prestatzeko sistemak, garraiatu eta automatikoki sailkatzeko sistemak, industria, aireportu eta osasun sektoreetara bideratuta.

Ingeniaritza logistikoko zerbitzuek soluzio logistiko globala bideratzen eta bermatzen dute, eta horren baitan daude diseinu eta planifikazio logistikorako zerbitzuak, saldu ondoko zerbitzuak edo berringeniaritzako zerbitzuak, bezeroekin elkarlanean garatzen direnak.

ULMA Handling Systems-ek Intralogistika sektorean erreferentzia puntu garrantzitsua ezartzea lortu du, soluzio logistiko integralen merkatuan enpresa lider bihurtuz. Bere sare tekniko eta komertzialaren baitan Espainia, Frantzia, Holanda, Brasil, Peru eta Txileko delegazio eta filialak daude.



Naroa,
*Ainara*ren alaba
Harreragilea **ULMA**n

.. *Enbasatzeko
Ekipamenduak eta
Sistemak*


ULMA Packagingek paketatzeko ekipamendu eta zerbitzuak diseinatzen eta ekoizten dihardu, eta horretarako diseinu eta fabrikaziorako teknologiarik aurreratuenak ditu.

Merkatuko makina eta aplikazio gama zabalena du, eta bere profesionalek, trebakuntza handia izanik, bezeroen premietara egokien moldatzen den soluzioa eskaintzen dute beti. ULMA Packaging Berrikuntzarekin, Kalitatea-ekin eta Zerbitzuarekin konprometituta dago eta bere bokazioa bezeroen produktuei balio erantsia ematea da.

.. *Global packaging*

ULMA Packagingek enbasatzeko lerro integralak fabrikatzen ditu: Flow Pack ontziratze makinak, Termoformatzaileak, Termozigilatzaileak, Bertikalki ontziratze makinak, zorrotan eta sortatan banatzeko makinak, Atzeragarria, Film zabalgarran biltzeko makinak, Ikuskatze sistemak, Garraio sistemak, Robotak eta Manipulaziorako moduluak.

Lehiarako dituen abantailak hauek dira nagusiki: enbasatzeko soluzio ugari egotea, tokian-tokian erantzuten duen erakunde globala izatea, 20 herrialde baino gehiagotan presente egotea, bezeroarengana sendo bideratuta egotea, lehen minututik bertatik bezeroari arreta eginez eta aholkua emanez, produktua etengabe berritzen egotea, eta materialen kontsumoa eta erabilera minimizatzea.



ULMA
Piping

08

Maddi.
Jean Martin en alaba
Mantentze zerbitzuko arduraduna **ULMA**n

..


Bridak eta Fittingak

ULMA Pipingek hodi, brida eta fittingetarako forjako osagarriak fabrikatu eta saltzen ditu, Petrolio, Gas, Petrokimika eta Energiaren sorkuntzarako industrietan erabiltzeko. Munduko liderra da sektorean, produkzio eta teknologia ahalmenari dagokionez.

.. *Mugarik gabeko Fidagarritasuna*

ULMA Pipingek 8.000 tona arteko prentsa mekanikoak eta mekanizazio larro garrantzitsuak ditu, baita sektoreko konpainia nagusien errekonozimendua eta homologazioa ere: EXXON MOBIL, TOTAL, SHELL, CHEVRON, PETROBRAS, SAUDI ARAMCO, etab.

I+G+b alorrean duen lantaldeari esker, zerbitzu ugari eskaintzen ditu, besteak beste, soldadura eta produktu ingeniariatza, edozein motatako piezak diseinatu eta fabrikatu ahal izateko eta soluzio tekniko berritzaileak eta lehiakorrak eskaini ahal izateko, betiere dagozkien estandarrak betez.





00

.. Zerbitzu Zentralak

Grupo ULMA, S. Coop.
Garagaltza auzoa, 51 - 22 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 25 03 00
F 00 34 943 78 09 17
www.ulma.com
grupoulma@ulma.com

01

.. Agrícola

ULMA Agrícola, S. Coop.
Garibai auzoa, 9 - 50 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 03 49 00
F 00 34 943 71 64 66
info@ulmaagricola.com
www.ulmaagricola.com

02

.. Architectural Solutions

ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.
Zubillaga auzoa, 89 - 20 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 78 06 00
F 00 34 943 71 64 69
info@ulmaarchitectural.com
www.ulmaarchitectural.com

03

.. Orga Jasotzaileak

ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.
Otadui zuhaiztia, 8 - 32 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 71 80 33
F 00 34 943 78 35 02
atencionalcliente@manutencion.ulma.es
www.ulmacarretillas.com

04

.. Construction

ULMA C y E, S. Coop.
Otadui zuhaiztia, 3 - 13 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 03 49 00
F 00 34 943 03 49 20
contact@ulmaconstruction.com
www.ulmaconstruction.com

05

.. Conveyor Components

ULMA Conveyor Components, S. Coop.
Zelaieta auzoa z/g
48210 Otxandio · Bizkaia · Espainia
T 00 34 945 45 00 75
F 00 34 945 45 02 57
info@ulmaconveyor.com
www.ulmaconveyor.com

06

.. Handling Systems

ULMA Manutención, S. Coop.
Garagaltza auzoa, 50 - 67 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 78 24 92
F 00 34 943 78 29 10 | 00 34 943 71 81 37
informa@manutencion.ulma.es
www.ulmahandling.com

07

.. Packaging

ULMA Packaging, S. Coop.
Garibai auzoa, 28 - 145 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 73 92 00
F 00 34 943 78 08 19
info@ulmapackaging.com
www.ulmapackaging.com

08

.. Piping

ULMA Forja, S. Coop.
Zubillaga auzoa, 3 - 14 posta-kutxa
20560 Oñati · Gipuzkoa · Espainia
T 00 34 943 78 05 52
F 00 34 943 78 18 08
ulma@ulmapiping.com
www.ulmapiping.com

Gara

Gara